

DIRU-SARRERAREN ITURRIAK

- Zenbat eta nola ordaintzeko prest dago zuen bezeroa eskaintzen ari zareten produktuaren edo zerbitzuaren truke?

Gure produktua ordaintzeko prezio egokiena 10-15€koa izango da (agian 12,99 euro) eta hiru euritakoak erosi ondoren (Euritako asko direlako), %40ko deskontua izango du hurrengo erosketan. Gure produktuari dagokionez, ordainketa bakarreko sarrera izango da, prezioa altua ez delako eta momentuan ordaindu ahal delako. Prezioei dagokienez, honela sailkatzen dira: Prezio finkoak eta dinamikoak. Gure produktuaren kasuan, prezioa, finkoa izango da, ez da aldatuko enpresak finkatzen dituen erreferentziazko aldagaien denbora-bilakaeraren arabera. Diru-sarrerak sortzeko modu anitzak dauzka enpresa batek, halanola: Aktiboen salmenta, erabileragatik, harpidetzagatik saria, mailegua, rentinga eta alokairua, lizentziak, broker edo komisio bidezko sariak eta Publizitatea. Diru-sarrerak sortzeko, gure kasuan, publizitatea eta maileguak erabiliko ditugu.

Gure enpresak/Gure produktuak, hasieran, inbertsio handiak izango ditu ahalik eta txakurrentzako euritako gehien egiteko, eta horregatik, erabaki dugu hasierako kapitala, 4000 eurokoa izango dela, SL bat izango delako; gure ustez, hasierako sarrera hauekin, (hiruko erregela eginez), 400 euritako egingo ditugu, eta hoietako 300 salgai jarriko ditugu eta geratzen diren 100 euritakoak, biltegian biltegitratuko ditugu, Stock Haustura ez gertatzeko



